

Lehen industrien bultzada

Jose Brunetek XIX. mendearen bigarren erdian egindako argazkiak osatutako 'Aurrera eginez' erakusketa ikusgai dago Koldo Mitxelenan / 8-9

FOT_MREALDEFENSA_0101

Udan, abenturaz abentura

Hilabete ahaztezina igarotzen ari dira Ttakun Kultur Elkartearen udako txoko eta udalekuetan dabilzan gaztetxoak / 6-7

Hilabete honetako udalbatzarra izan da ikasturteko azkena; hiru gai landu dituzte, eta galdera eta errekuak / 2

Herriko zenbait ostalarik pintxo bereziak prestatuko dituzte, Santa Ana eguna girotzeko / 3

Beroari aurre egin eta gogotik ospatu dituzte Karmengo jaiak Oriako auzotarrek; saninazioak izango dira hurrenak / 4-5

Artetxetar anaiek eta Arteagatar lehengusuek jokatu dute Santa Ana txapelketako finala / 10

Zenbait herritar Absolutu eta Junior Mailako Espainiako Txapelketa jokatzeko ari dira, Katalunian / 11

ETE arraun ligan, Hondarribiak Marina De Cudeyo Dynasol Sari Nagusia bandera irabazi du / 12

MERKEALDIA
MERKEALDIA
MERKEALDIA



R.P.S. 9/1/20

Kontsultatu oporren kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multioplicas.com   

Amaitu dira ikasturte honetako udalbatzarrak

Lau puntuko gai ordena aztertu du udalbatzarrak uztaileko ohiko saioan. Nahiko azkar eta eztabaida gutxiarekin landu dituzte lehenengo hirurak. Laugarrengoa, berriz, galdera eta erreguen tartean, askotariko gaien inguruan galdegin dute EAJk eta EH Bilduk

Txintxarri

2022ko ekainaren 9an eta 27an egindako bilkuren akten onarpena eginez hasi zuten hilabete honetako saioa, eta gai ordenako bigarren puntuari eutsi zioten jarraian. EH Bildu, EAJ-PNV eta ELOP alderdiek elkarrekin aurkeztutako aitorten bat ekarri zuten bilkurara. Ekainaren 25ean Melillan gertatutakoak mahaiganeratu zituzten. Azaldu zuten Espainiako hegoaldeko mugen historiako "hondamendi humanitario larrietako bat" bizi izan zela bertan, eta gogorarazi, gutxienez 37 hildako eta dozenaka zauritu eragin zituela. Hala, nabarmendu zuten gertaera horrekiko Pedro Sanchez Espainiako presidentearen adierazpenak "onartezinak" direla. Zortzi puntuko adierazpen bateratua adostu zuten, eta aurrera egin bozkaketan (PSE-EEk aurka bozkatu zuten).

Bozka azalpena egiteko tartea zabaldu zuten ondoren Agustin Valdivia alkateak, eta alderdikide David Mateosek hartu zuten hitza, aurka bozkatu izanaren zergatiak azaltzeko. Esan zuten erakunde bakoitzarekin "adeitsuagoa eta egokitasun handiagokoa" den mozio alternatiboa aurkeztu zuela bere alderdiak. Halaber, atsekabea agertu zuten Melillan gertatutakoarekin, eta elkartasuna

adierazi zien hildako eta zauritutakoen senideei.

Oposizioko hiru alderdiek mozio bateratu bat ekarri zuten hirugarren puntura; Lasarte-Oriako maiatzeko elikagaien banaketarekin gertatukoari, eta horrek Gizarte Zerbitzuen Sailean sortutako egoerari buruz hitz egin zuten. Dirudienez, ekainaren 9ko udalbatzarrean maiatzeko elikagaien banaketa egin gabe geratu zela-eta, horren inguruan galdegin zuten alderdiek, eta saileko buru Lourdes Acevedok emandako erantzunaren harira sortu da nahasmena sail horretan. Hitzartze horren ostean, Gizarte Zerbitzuetako bi administrari laguntzailek mezu elektronikoa bana bidali zieten udalbatzarreko alderdi guztiei, Acevedoren adierazpenen aurrean euren jarrera agerraraziz.

Egoera horren aurrean, kezka agertu zuten hiru alderdiek, eta hainbat eskakizun egin zituzten udal gobernu taldeari. Hitzartze batzuk tarteko, bozketa egin zuten. Aurrera egin zuten gaiak (PSE-EE, aurka agertu zen).

Galdera eta erreguak egiteko

Askotariko gaiak ekarri zituzten udalbatzar aretora azken saioan ere. EAJko Jon Antxordoki eta Boris Nogales izan ziren hitza hartzen lehenak. 2022. urtetik

aurrera erretiro premiak eskatuko dituzten udal langileekin zer egin asmo duen galdegin zion PSE-EEri Antxordokik, eta horrekin batera, Kotxeraseko suteaz ere hitz egin zuten. Jakinarazi zuten inguru horretan jabetzak dituzten zenbait bizilagun kexu direla azken boladan bizitzen ari diren zenbait egoera direla-eta. Kontatu zuten, besteak beste lapurretak gertatzen ari direla, eta egoera horren aurrean erantzun bat eskatu zion alderdi sozialistari. Nogalesek, aldiz, igeriketa ikastaroko matrikulazioez galdetu zuten, eta hainbat kultur eragileren kexak ere mahaigaineratu zituen. Azken horren inguruan azaldu du oraindik, zenbaitek 2021. ikasturteko hitzarmenaren %40 ez dutela kobratu eta ordainketa horiek noiz egingo diren jakin nahi izan zuten.

EH Bilduko Uxue Loinazek hartu die lekukoa gero. Zubietako Arkaitzerrekan egunotan jazotako isuriekiko kezka agertu zuten, eta alkateari galdetu zion ea gertatutakoaz informatu edo kezka agertu duen. Horrekin batera, oposizioak bere garaian egindako eskaera bat ere ekarri zuten mahaigainera. Gizarte Zerbitzuen gaineko saio monografiko bat eskatu zutela gogorarazi zuten, eta jakinarazi, gaur-gaurkoz ez dutela erantzunik jaso.



Liluraren kontra taldea izan zen oholtzara irteten lehena. TXINTXARRI

Herriko musikarien agertoki izan da Jalgi kafe antzokia

DJen emanaldiek girotu dute eguerdian, eta bi musika talde aritu dira goanean. Giro bikaina izan da kafe antzokian

Txintxarri

Udako festa egin zuten Jalgi kafe antzokiak hilaren 16an. Eguerdian hasi ziren DJ Uistin Official Selectors eta DJ Grassmanen emanaldiek girotutako bermutarekin. Arratsaldean, berriz, Liluraren kontra eta LOUH taldeek kontzertua eman zuten. Lehen taldearekin aritu zen kanta

pare batean LOUHko abeslaria. Hirukoteak bere kanta zerrenda amaitu ondoren, lekukoa hartu zuten besteek. Boskote lasarteoriatarak abesti ezagunen bertsioak egin zituen, haiek entzutera bertaratu zirenen gozamenerako. Horiekin abestera animatu zen tabernako kudeatzaile Javi Mora.



LOUH taldeak erromeria giroa jarri zuten. TXINTXARRI

Gaztetasuna oinetan dantzatu dute herriko plazan; emanaldi koloretsua osatu dute

Kolore biziko jantzi eta oinetakoak soinean, emanaldi ederra eskaini dute Oinkari Dantza Taldeak eta Hika Teatroak

Txintxarri

Oinkari Dantza Taldeak eta Hika Teatroak elkarlanean sortu duten *Gazte* ikuskizuna ekarri zuten Okendo plazara. Emanaldia Eusko Jaurlaritzak sustatutako XVIII. Dantza

Zirkuituaren barruan egin zuten. Ikuskizunak zuzeneko musika, dantza eta hitza josten ditu eta ura du zenbaitetan jarraipenerako hari. Hainbat dantzariaren bizipenetan oinarritutako testuak Agurtzane

Intxaurragak idatziak dira eta berak errezitatu zituen, nagusiki. Lanak euskal dantza tradizioaletik garaikidera bidaiaz gain, bestelako dantza mota batzuk ere batzen ditu. Mugimendu bizi, eta bereziki mantsoekin harritu zituzten inguruan bildu ziren lasarteoriatarak.



Hika Teatrotoak eta Oinkari dantza taldeko kideak agertokian dantzan. TXINTXARRI

Santa Anari ongietorria, pintxo goxo artean

Bakailaoa eta piperra oinarri izango duten pintxoak prestatuko dituzte sei tabernak hilaren 24rako, Santa Ana egunerako motorrak berotzeko. Mokadu bakoitzak 2,50 euro balioko ditu. Helburua da ospakizun hori sustatzea herrian, "Lasarte-Oriakoa delako"

Txintxarri

Igande honetarako plana, hilak 24: Okendo plazako artisau azokatik buelta bat eman, eta indarrak berritzeko pintxo eder bat jan gero. Edo alderantziz, mokadu bat aurrea eta erosketak gero. Santa Ana Eguna hilaren 26an izango da, asteartearekin, eta motorrak berotze aldera proposamen gastronomiko bat prestatu dute Aterpea elkarteak eta herriko zenbait tabernak. Zehazki, hauek: Alai, Arkupe, Buenetxea, Herriko Etxea, Lasarte eta Zubieta. Ostalarien izenean Jenni Garciak hitz egin du, Arkupeko jabeak, eta herritar oro gonbidatu du pintxoak dastatzera: "Guztiak oso goxoak egongo dira, ziur".

Elaborazioa nola egin tabernari bakoitzak erabakiko du, baina bi osagai erabili beharko ditu ezinbestean: bakailaoa eta piperra. "Helburua da Santa Ana eguna girotzea eta ospakizun hori sustatzea, Lasarte-Oriakoa delako", nabarmendu du Garciak. Pintxo bakoitzak 2,50 euro balioko ditu.

Ostalaritza sustatzeko

Aterpeko lehendakari Miguel Angel Prieto ere bertaratu da aurkezpenera, eta esan du "oso pozik" daudela elkarteko kideak, bi urteren ostean berriro ere



Aterpeko zein udaleko kideak eta ostalariak, egitasmoaren aurkezpenan. TXINTXARRI

ostalaritza sustatzeko egitasmoak "normaltasunez" egin ditzaketelako. Eskerrak eman dizkio Lasarte-Oriako Udalarri eta Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Komertzio Sailari, eman duten laguntzagatik.

Udalaren izenean Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandezek egin ditu adierazpenak. Azpimarratu du beste urte batzuetan "oso arrakastatsua" izan dela Santa Anako pintxoaren kanpaina, eta aurtengoa ere halakoa izatea espero duela. Adierazi du

lasarteoriatarren parte hartzea "funtsezkoa" izango dela horretarako.

Azokarekin batera

Artisauen azoka ere hilaren 24an izango da, Okendo plazan, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Postu ugari jarriko dituzte, herritarrek askotariko produktuak ikusi eta eros ditzaten. Berrikuntza gisa, talo saltoki bat ekarriko dute aurtun. Eventos Globales enpresa arduratuko da merkatua antolatzeaz.



NEURE KABUZ
ASIER ODRIEZOLA

Bero larria

Nik ez dakit delako klima aldaketaren ondorio den (orain, klima emergentzia esan behar omen da) edo giza eraginaz haratago ere gertatuko zatekeen zerbait den, baina itolarri potoloa izan dugu joandako egun batzuetan, igande eta astelehenean bereziki. Badakit 30 graduko tenperatura edozein gizakirentzat dela gehitxo, baina hemen ez gaude batere ohituak. Cordoba batean, esaterako, noiznahi dabilta neurri horietan behin udara iritsiz gero, baina gurean deigarria da, zorionez. Nahikoa lan izan dugu etxeko freskurari eusten edo giroa egosi ez zedin saiatzen.

Inoiz madarikatu izan dugu hemengo laino festa edo eurirako joera. Eguraldi "ona" eskatzen genuen baina errezeloa daukat egunotakoa ezagututa, lehenago geratu nahian garela guztiok. Eta orain hausnarketarako garaia da, denok ere pentsatzen hasiak garelako urrutian kokatuta geneukan aldaketa, klima aldaketa, uste baino azkarrago hasi dela arrastoa uzten, uste baino lehenago ari garela atzaparkadak jasaten. Eta nahi badugu eta berdin nahi ez badugu ere hausnarrera garamatza garapenaren abiadurak: prest al gaude gure ohiko bizitzako ohiturak, kontsumo ohiturak aldatzeko? Prest gure bidaiatarako joera murrizteko? Prest geure autoari muzin egin eta garraio publikoaren eskaintzara moldatzeko? Uste dut bozgorailua ere erabiliko genukeela lurraren aldeko hitzak zabalitzen, baina gero ez gaudela proportzio berean sakrifizioak egiteko pronto.

Adituek diote, gu garela horren inguruko erabakia hartu behar duen belaunaldia, ondorengoei ondorioak jasateko beste aukerarik ez dutelako izango. Badakigu gizateria hondamendira joango dela inoiz eta ez da eguzkia itzaltzen denean izango. Askoz lehenago izan dadin saiatzen ari gara gu geu eta lortuko dugu. Arrakasta izango dugu horretan. Bitartean, bilatu itzala.

Etengabe aldatzea, gako

Orain-Bi Zirkua konpainiak *Mute* antzezlanaren emanaldia egin zuen Okendo plazan, Lasarte-Oriako Udalarri eta Eusko Jaurlaritzak sustatutako Antzerkia Bultzatuz egitasmoaren barruan. Etengabe aldatu behar diren garrantzia aldarrikatzen du obrak.



TXINTXARRI

txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

"PUBLIZITATEA DA
INBERTSIORIK ONENA"

HORREGATIK... DESKONTU BEREZIAK DITUGU
HERRIKO KOMERTZIO, ENPRESA ETA OSTALARIENTZAT

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66

Beroak ez du jai giroa ito

Karmengo Jaiak gogotik ospatu dituzte Oriako auzotarrek, egun osoz



Buruhandi bihurriek ez zituzten auzotarrak bakean utzi. TXINTXARRI



Txistulariek esnatu zuten auzoa. Instrumentuak eskuetan, diana egin zuten. TXINTXARRI



Etxeko txikienek eskulan ugari egin zituzten goizeko tailerretan. TXINTXARRI



Xumela koruko kideek meza amaitu eta gero abestu zuten, Karmengo Ama kaperaren atarian. TXINTXARRI



13:00etarako gosetuta zeuden herritarrek, eta luntxean berritu zituzten indarrak. TXINTXARRI



Emanaldiaren aurretik, Porrotx pailazoak argazki ugari atera zituen herritarrekin. TXINTXARRI



Oriako belardietako batean zuhaixka bat landatu zuten Porrotxek eta haurrek. TXINTXARRI



Toka txapelketako partaideetako bat, burdinazko disko bat jaurtitzen. TXINTXARRI

Goizetik iluntzera Karmengo Ama Birjinaren eguna ospatu zuten Orian, hilaren 16an. Kapera inguruan egin zituzten goizeko jarduerak gehienak, eguzkipean; arratsaldean, berriz, ibai ertzeko zuhaitzen itzalpean jardun ziren, iluntzera arte.

Txistularien dianak jaiak hasteko ordua zela adierazi zien Oriako bizilagunei. Haurrek eskulanak egin zituzten eta korrika aritu ziren buruhandien aurrean zein atzean. Beldurra zuten haurrek, laster galdu zieten pertsonaia bihurrirei, hala ere, penak goxatzeko, gozokiak banatu zizkieten. Aldi berean, eguerdian hasita, meza ospatzen ari ziren Xumelako lagunek girotuta. Amaieran, denentzako luntxa egin zuten, pintxoak eta beroa arintzen saiatzeko sagardoa, ura edo freskagarriak izan zituzten aukeran. Mokadua egiten ari zirela Porrotx agertu zen, eta haur zein gazte, berarekin argazkia egiteko baliatu zuten aukera. Ondoren, emanalditoxa egin zuen pailazoak kapera atarian eta intxaurren bat landatu zuten eraikinaren albo batean.

Arratsaldean giroa freskatzeko ahaleginak ziren Brunet lorategian. Lehen jarduerak ur globo eta ur pistolekin egindako borroka izan zen. Haurrek eta helduek gustura jokatu zuten, beroari aurre egiteko bide egoki bezain entretenigarria izan baitzen. Blai eginda amaitu zuten denek, batzuk segundo gutxitan, baldekada bat ur jaso baituzten. Su etena egin zuten askaria jateko, eta orduan, bestelako aukerak ere egin zituzten haurretako batzuek: puzgarrietan saltoka aritu edo aurpegia margotu. Orduantxe hasi ziren punteria proban jartzen toka txapelketan. Diskoak hiruna aldiz bota zituzten partaide bakoitzak, baina gutxi izan ziren burdinari jo ziotenak. Begira zeudenetako batzuk elkar xaxatu eta animatu ziren parte hartzera.

Kango erakustaldia eta zunba saioa ere egin zituzten Saito gimnasioko lagunak eskutik. Eta gorputza mugitzeko gogoz inor gera ez zedin, DJ Karpinek jarritako musikarekin dantzan aritzeko aukera izan zuten.



Hilaren 16an egin zuen beroa kontuan izanda, ur pistolaren 'tiroak' gustura jaso zituzten auzotarrek. TXINTXARRI



Jolas eta jolas aritu eta gero, askari goxoa jan zuten etxeko txikienek. TXINTXARRI

Ahaztuko ez duten hilabetea

Gustura dabilta gaztetxoak

Udako txokoak eta udalekuak antolatuta dituen Ttakun Kultur Elkarteak aurten ere, euskara ardatz hartuta herriko haur eta gaztetxoei milaka abentura bizitzeko aukera emateko helburuarekin. Aurreko bi urteetan koronabirusagatik egin ezin izan zituzten jarduerak anitz berreskuratu dituzte aurten txokoetako kideek, sanferminak ospatzea edo herrian barrena desfilatzea, kasu. Horrez gain, Atsotabarreko egoiliarrek bisitatzea joan dira beste behin, baina ez dute patioa hesiaren beste aldean geratu beharrik izan; sartu, eta kantuan zein dantzan aritu dira adineko pertsoekin, giro ederrean. Ur jolasak eta beste ekimen ugari ere aurrera eramaten ari dira. Bizipenez jositako hilabetea 29an itxiko dute, azken festarekin, Okendo plazan, eta eguraldiak ez badu laguntzen, Oriarte Landaberrin.

Bien bitartean, hainbat herri ezagutzen ari dira udalekuetako partaideak: txandak egiten ari dira, besteak beste, Albenizen, Donemiliagan zein Larraulen.



Hilaren 15eko desfile koloretsuan parte hartu zuten haur eta begiraleek talde argazki erraldoia



Txupinazoarekin lehertu zen festa San Fermin egunean. TXINTXARRI



Albeniz ezagutu zuten DBH 1 eta 2. mailako nerabeek. TXINTXARRI



Txupinazoaren ostean, zezenengandik ihesi aritu ziren txokoetako gaztetxoak, Okendo plazan. TXINTXARRI



LH3 eta 4. mailako gaztetxoak Larraulera joan dira. TXINTXARRI



atera zuten Okendo plazan, emanaldiak bukatu eta gero. TXINTXARRI



Hauerek primeran pasa zuten hilaren 15eko desfile koloretsuan. Erdigunean barrena ibili ziren. TXINTXARRI



Atsotakarako egoiliarrek sorpresa ederra jaso zuten hilabete hasieran; kantu eta dantza egin zuten. TXINTXARRI



Udalekuetako partaideek ez dute aspertzeko tarterik izan Donemiliagan. TXINTXARRI



Hilabete honetan egiten ari den beroarekin, ezinbestekoak dira ur jolasak, freskatzeko. TXINTXARRI



FOT_MREALDEFENSA_0031

Ramon Brunet Prat izan zen Oriako irun eta ehun fabrikako burua hil arte. Lantegi ondoko etxe jauregian bizi izan zen. FOT_MREALDEFENSA_0031

Garaien eraldaketan barrena irudi bidaia

Jose Brunet Bermingham enpresariak duela 150 urte egindako irudiekin osatutako *Aurrera eginez* argazki bilduma ikusgai dago Koldo Mitxelena Kulturunean. XIX. mende bukaeran Donostiaren transformazio sakonaren lekuko eta eragile izateaz gain, lehen industrializazioak bereziki emakumeengan izandako eragina ere jaso zuen

Maitane Aldanondo

Brunet familiak zeresan handia izan zuen XIX mendearren bigarren erditik aurrera Gipuzkoan aurrera eramandako industrializazioan, baita, bereziki, harresiak eraitsi ondoren eraikitako Donostian ere. Neurri batean edo bestean eraginez bere aletxoak ekartzeaz gain, Jose Brunet Bermingham (Donostia, 1836-1891) eraldaketa horien lekuko ere izan zen eta zaletasuna zuen argazkilaritzaren bidez jaso zituen. Irudi horietako batzuekin osatu dute Lola Horcajo

eta Juan Jose Fernandez Beobide historialariek *Aurrera eginez* erakusketa, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko erakusketa aretoan irailaren 3a arte ikusgai dagoena.

"Argazki hauek erakusten diren lehen aldia da. Jose Bruneten Flora alabaren bilobak 1976an jaso zituen kristalezko negatiboak eta maiatzaren 13a arte ez dira ikusi. Kalitate oso oneko irudiak dira", azaldu du Horcajok horma luzeetan zintzilik dauden zuri-beltzekoei keinu eginez. Enpresari

eta zinegotziak 1865 eta 1891 urteen artean ateratakoek argazkilari ez profesional baten Donostiari buruzko bilduma pribatu garrantzitsuena osatzen dute. Mila beirazko plaka eta paperezko argazki baino gehiago utzi zituen, eta Ubaldo semeak kopuru hori zabaldu zuen 1930eko hamarkada bukaera arte egindakoekin. Ondare horren jabe da Joaquín Mencos Doussinague, Brunet Berminghamen birloba eta Real Defensa markesa. Nafarroako Errege Artxibo Nagusian gordeta

dago eta historialariek duela sei urte izan zuten negatiboen berri.

Eraldaketa garaia

Bi zatitan banatu dute edukia. Batetik, egungo Donostiaren oinarriak jarri zituen eraldaketa urbanistikoaren bilakaera dago, batzuetan aurrean zein kale edo eraikin dagoen lehen begi kolpean atzematea zaila bada ere. Artzain Ona, Aldundiko Jauregia, egungo udaletxea den kasinoa... nola altxa zituzten ikus daiteke. Garai horretan berrikuntza handiak

BRUNET FAMILIA GIPUZKOAKO INDUSTRIALIZAZIO PROZESUAREN AITZINDARI IZAN ZEN

barneratu zituzten, biztanleen eguneroko bizimodua hobetu zutenak, esaterako, gasa, ur korrantea, tranbia edo argindarra. Halaber, lantegiek, merkataritzak eta turismoak lanpostu berriak sortu zituzten eta aukera eman zieten emakumeei ere. Azken hauek dira irudi sortaren beste zatiaren protagonistak.

Industrializazioarekin batera galdu egin ziren ohiko ogibide zituztenetako batzuk –irule, urketari edo latsari– eta martxan jartzen hasiak ziren lantegietan topatu zuten beraien tokia. Orian 1848an zabalduko Fábrica de Hilados y Tejidos lantegiaren irudi eta aipamenak ez dira falta, ezta Brunet eta hura bezalako beste sendi burges batzuen bizimoduaren isla direnak ere.

Brunet merkataria familia XVIII. mende bukaeran ezarri zen Donostian, jatorri zuten Conpos (Bartzelona) utzita. Itsasoz bestaldera burdina esportatu, eta kakaoa zein azukrea inportatzen zituzten. Salerosketan aritzeaz gain, Brunet bankua sortu zuten. Okupazio napolenikoaren garaian Lekeitiora joan ziren, 1813ko suteak hiria suntsitu ondoren bueltatu, eta berreraikitzearen alde lan handia egin zuten. Brunetdarrak alkate edo errejidore izan ziren, pentsamendu liberala bultzatu zuten.

Horrez gain, Gipuzkoako industrializazio prozesuaren aitzindariak izan ziren: Oriako irun eta ehun fabrika zabaldu eta Espainiako lehen gasometroa jarri zuten bertan, paper jarraituaren lehen fabrika, La Esperanza, abiarazi zuten Tolosan, Gipuzkoako lehen galdategi modernoetan parte hartu zuten, hala nola, Fossy y Cía-rena Lasarten, eta Beasaingo Hierros San Martín fabrikaren modernizazioan (CAFen jatorria) aritu ziren.

Hariak eta ehunak

Euskal Herriko lehen industria modernoetako bat izan zen Oriakoa. 1848an altxa zuten fabrika Oria Aundi eta Oria Chiqui baserrien orubeetan eta haien

ingurukoetan, artean Urnietako lurrak zirenak. Lantegiaren arduraduna Ramon Brunet Prat izan zen, Jose Manuel anaiarekin batera hemen jaiotako lehen belaunaldiko kidea. Elkarrekin negoziotan aritu ziren, baina zereginak partekatu zituzten. Nahiz eta Ramon Donostiako Tranbia Konpainiaren lehendakaria ere bazen, ehun fabrikari eskaini zion bere bizitza profesionala. Han bertan, Brunet jauregi etxean bizi izan zen 1891n hil zen arte. Bi pisuko eraikinak upategia, lorategia, biribilgunea, ur jolasak zituen urmaela, tenis pista eta ibai ertzean pasealekua zituen. Lorategian zuen antilopearen irudiak fabrikaren ikurra gogorarazten zuen.

Fabrikaz gain, sei etxebizitza bloke eraiki zituzten langileentzat, 150 familiarentzat lekua zuten. Ekonomatua, harategia, taberna, bizartegi-ileapaindegia, eliza eta haurrentzako eskola zituen. "Langile kopuru oso altua zen garaian herriguneak zuen biztanle kopuruarentzat", zehaztu du Horcajok. Martxan jarri zutenean Lasarte-Oriako biztanleak ez ziren 1.000ora iristen.

80.000 metro koadro zituen guneak eta bertan ekoizten ziren kontsumorako ehun produktuak: hariak, telak, kotoi zuri eta tindatuko ehun arruntak, alkandora, traje eta ezein arropetarako ehunak, eta alpargatetarako zirenak. Urtean 350 bat tona ekoizten zituzten, erdia inguruan saltzen zuten eta gainerakoa lurralde mugakideetan eta Katalunian. Fabrikak lan egiteko indarra Oriatik ateratzen zuten, presa baten eta ur salto baten bidez.

Pentsamolde aldaketa

Lantegietako eskulan premia handiak haietan aritzeko aukera eman zien emakumeei eta horrek aldaketa handia ekarri zien beraiei, familiei eta garaiko usteei. Fabrika lanek, ordea, errezeloa eta mesfidantza eragiten zuten eta baserrikoa gogorragoa bazen ere, neska gazteek nahiago zuten. Soldata handiagoak izan ziren manufakturetara salto egiteko pizgarri, nahiz eta aldi batekotzat jotzen zuten, ezkondu ondoren normalean etxetik kanpo lan egiteari uzten baitzioten.

12 bat urte zituztela hasi ohi ziren lanean eta familiek zalantzak gaindi zituzten, Horcajoren esanetan, "patroiak aitaren papera


jokatzen zuen". Frederic Le Playk 1860an idatzitako *Campesinos y pescadores del norte de España* txostenean lehen fabriketako bizimodua jaso zuen, tartean, Oriakoa. Erakusketan irakur daitekeen zatian, giroa "barnetegi baten bera" dela dio eta ohiko egun bat deskribatzen du.

Garaian emakumeen etorkizuna etxe barruko familia inguruan zegoela uste zuten; familietatik aldentuta, langileen arteko elkarbizitzak eta soldata fijo batek emandako autonomia ekonomikoak, ordea, pentsamoldea aldarazi zuten, mantso baina geldiez.

Manufaktura zereginetarako emakumeak egokiagotzat zituzten, baina, hala ere, beraien soldata txikiagoa zen eta arduradunak gizonak ziren. Bereizita lan egiten zuten, solairu osoetan emakumeak bakarrik zeuden, eta Orian gehiago ziren. Antxon Agirre Sorondo historialariak bildutako datuen arabera, 1894an 400 langilek lan egiten zuten zuzenean edo zeharka lantegian, haietako 271 (%67,75) emakumeak ziren; 1924an, 308tik 190 (%61,69); eta 1947an, 400etik 270 (%67,50).



Ramon eta Jose Manuel anaiak Oriako jauregi etxean. Lantegiaren ikurra zen antilope baten eskultura zuten lorategian. FOT_MREALDEFENSA_0835



Jose Brunetek egindako argazki bildumaren zati bat dago ikusgai. FOT_MREALDEFENSA_0225



Lola Horcajo eta Juan Jose Fernandez Beobide historialariak. TXINTXARRI



Santa Ana Pala Txapelketako bigarren finalerdi irudia. TXINTXARRI

Artetxetarrak eta Arteagatarrak, finalera

Santa Ana Pala Txapelketako finala jokatuko dute, hilaren 26an. Pala jaialdia 17:30ean hasiko da Loidibarren pilotalekuan. Lehenik, Jagoba Mendizabal-Julen Urruzola eta Iñaki Castro-Eneko Mendizabal bikoteek hirugarren postua jokatuko dute

Txintxarri

Santa Ana Pala Txapelketako finaleko bikoteak erabaki dira. Hilaren 19an, Loidibarren pilotalekuan lehiaketako finalerdiak jokatu ziren. Ligaxkako partidetan ez bezala, ikusle ugari izan zuten parte hartzaileek eta ederki gozatu zuten pala jaialdiaz.

Lehen neurketan Jon Pello eta Iker Artetxe -ligaxkako lehen sailkatuak- eta Iñaki Castro eta Eneko Mendizabal bikoteak -sailkapeneko laugarren postua- neurtu zituzten indarrak.

Partida berdinduta hasi zen. Bi bikoteek ongi erantzuten zieten aurkariaren erasoari. Artetxetarrak, ordea, inertzia

apurtzea lortu zuten eta hamar bat puntu jarraian egin zituzten.

Castro eta Eneko Mendizabal bikotea saiatu arren, abantaila handitzeko gai ere izan ziren Artetxe anaiak; 30-12 irabazi eta finalerako lehen txartela eskuratu zuten.

Bigarren partida berdinduagoa izan zen. Ligaxkako bigarren

ASTEBURUKO HITZORDUAK

PALA

SANTA ANA TXAPELKETA

Santa Ana txapelketako finala eta hirugarren postua jokatuko dira. Asteartea 26. 17:30. Loidibarren pilotalekua.

IGERIKETA

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Absolutu eta Junior Mailako Espainiako Udako Txapelketa lehiatzen ari dira Buruntzaldea IKTko Garazi Etxeberria eta Bidasoa XXI taldeko Ainhoa eta Leire Martin herritarrek.

Hilaren 24a arte. Sabadelleko Can Llong igerilekua, Katalunian.

ITSAS ZEHARKALDIK

II. Zarautz-Mollarri-Zarautz eta 50. Getaria-Zarautz itsas zeharkaldiak jokatuko dira.

Hilaren 23a eta 24a. Zarautzen.

ZALDIAK

UDAKO DENBORALDIA

Udako denboraldiko zortzigarren jardunaldia jokatu da. Sari nagusia Gipuzkoako Foru Aldundia Piztu Kultura izango da.

Igandea 24. 17:30. Hipodromoa, Donostian.

ARRAUNA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Donostia Arraun Lagunak-ek Euskadiko Txapelketari egingo dio aurre.

Astelehena 25. Lekeitio, Bizkaian.

ETE LIGA

Hondarribiak Erreterriako Hiria Emakumeen Traineru Elkarteko Liga IV. Ikurriña lehiatuko du.

Larunbata 23. 13:30. Erreterrian.

KAE2

Hibaikak 37. Pasaiko Banderan parte hartuko du.

Larunbata 23. 17:00. Trintxerpe, Pasaian.

eta hirugarren sailkatuak izan ziren aurrez aurre; Jagoba Mendizabal eta Luken Carbayeda, Xabier eta Garikoitz Arteaga lehengusuen aurka. Carbayedak Julen Urruzolaren ordeko jokatu du azken bi partidetan, Urruzolak lan kontuengatik kanpoan egon behar izan duelako.

Tantoak bata eta bestera igotzen ari ziren markagailuan. Alabaina, hamazazpina berdinduta zeudenean, Jagoba Mendizabalek eta Carbayedak ezin izan zioten erritmoari eutsi; bi tanto gehiago egin zituzten soilik.

Arteagatarrak, berriz, fin ibili ziren eta finalerako bigarren postua eskuratu zuten, 30-19 gailenduta. Azpimarratzekoa da

Xabierrek aurrean zein Garikoitz laguntzen egindako lana.

Finala eta hirugarren postua

Santa Ana Egunean, hilaren 26an, bilduko dira berriro ere lau bikoteak, Loidibarren pilotalekuan. 17:30ean, hirugarren postua erabakiko da Jagoba Mendizabal-Julen Urruzola eta Iñaki Castro-Eneko Mendizabal bikoteen arteko norgehiagokan. Jarraian, final handia izango da; Artetxetarrak, Arteagatarraren aurka.

Neurketa hasi aurretik, Erketz EDTk agurra dantzatuko die bikoteei eta amaitzean, berriz, sari banaketa izango da. Udalak jakitera eman duenez, txapelketan parte hartu duten bikote guztiek jasoko dute oroigarri bana.

Gomez Margallo eta Gil, Txintxerpeko podiumean

Asturiasen, Lleidan eta Bizkaian ere izan dira herriko kirolariak mendi lasterketetan lehiatzen

Txintxarri

Beroari aurre eginez, Lasarte-Oriako lasterkariak errepidean zein mendian lehiatu ziren hilaren 16an eta 17an. Lehen postuetan izan ziren horietako batzuk. Hilaren 17an, esate baterako, Trintxerpeko Karmenetako 5 kilometroko herri krosetan podiumeko lehen bi postuetan izan ziren Raul Gomez Margallo eta Gorka Gil herritarrek.

Ehun bat korrikalari izan ziren Trintxerpeko auzoan antolatu ohi den kros herrikoien irteeran. Hasieratik izan zen nagusi Gomez

Margallo lasarteoriatarra eta bere erritmoa jarraitzeko gai izan zen bakarria bere lagun Gorka Gil izan zen. Azken kilometroan, ordea, erritmoa azkartu eta aldea lortu zuen Gomez Margallo helmugan. 15.35ean egin zituen bost kilometroak; Gilek, berriz, 15.56ean.

Azken horrek gainera bigarren postua mantentzeko ahalegina egin behar izan zuen, atzetik podiuma osatuko zuen Andoni Saldias anoetarra baitzetorren ziztu bizian (16.00).

Ez ziren proban parte hartu zuten herritar bakarrik izan.



Gil eta Gomez Margallo, Trintxerpeko 5 kilometroetako podiumean. JAVIER ZATARAIN

Roberto Pera (19.11), Ander Gartziandia (23.22) eta Veronica Sanchez (26.58) herritarrek ere helmuga zeharkatu zuten.

Mendian ere bikain

Pola de Somiedo, Asturiasen hilaren 16an antolatu zen Somiedo

erronkan ere izan zen herriko ordezkariarik. Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko (LOTME) Borja Granadok hamabigarren postuan amaitu zuen proba eta senior mailako zortzigarren ere izan zen.

Ultra Trail proban 86 kilometro egin behar zituzten arren,

eguraldiaren iragarpenak medio, 65 kilometrorra murriztu zuten antolatzaileek Somiedoko parke naturaleko mendietan barrena egiten den ibilbidea. Herritarrek 09.02.49 behar izan zituen helmugara iristeko.

Distancia txikiago bati egin zioten aurre LOTMEko Jon Palet, Aitor Moreno eta Ainara Blancok, Lleidan. Vielha - Molieres 3010 traileko Montpius Skyrace proban 24 kilometroko bidea egin zuten herriko kirol taldeko kideek. Paletak 03.30.08 egin zuen helmugan, Morenok eta Blancok, aldiz, batera igaro zuten azken marra, 05.11.14.

Egun horretan bertan, Bizkaiko Kortezubi herrian, XV. Mendi martxa antolatu zen eta LOTMEko Iñaki Letamendik 23 kilometrotako bide luzea egin zuen.

Herritarrak ederki, Espainiako txapelketan

Buruntzaldea IKTKo Garazi Etxeberria eta Bidasoa XXI taldeko Ainhoa eta Leire Martin ahizpak Absolutu eta Junior Mailako Espainiako Txapelketan lehiatzen ari dira. Lehiaketako bi egun igaro dira eta Martin ahizpak A zein B finaletan egin dute igeri

Txintxarri

Absolutu eta junior mailako Espainiako txapelketa lehian da, Sabadelleko Can Llong igerilekuan. Espainiako igerilari hoberenak batu dira hilaren 20tik 24ra Kataluniako herrian, eta bertan hiru herritar ditugu parte hartzen. Bidasoa XXI taldeko Leire eta Ainhoa Martin ahizpek absolutu mailako probetan egingo dute igeri; Buruntzaldea IKTKo Garazi Etxeberriak, berriz, junior mailan.

Hilaren 20an, txapelketako lehen jardunaldian eman zioten hasiera Leire eta Ainhoa Martin ahizpek lehiari.

Ainhoa izan zen lehena igerilekura jauzi egiten, 50 m. bular probako sailkatze saioan. Bertan B finalerako marka egin zuen (33,84). Finalean, berriz, marka hori ondu zuen, 33,17.

Leirek ere bizkar estiloko 50 m. probako B finalerako txartela



Garazi Etxeberria, Espainiako txapelketako igerilekuan. GARAZI ETXEBERRIA

eskuratu zuen 30,28 markarekin, eta finalean 30,06 egin zuen.

Bigarren jardunaldian, berriz, hiru herritarrak izan ziren igerilekuan.

Garazi Etxeberriak 50 m. libreko sailkatze probarekin

hasi zuen junior txapelketa. Bere marka onenetik urrun geratu zen (28,43) eta ezin izan zen bere adineko finalerako sailkatu. Hala ere, pozik agertu da igerilaria proban egindako lanarekin.

"Denboraldi motza izan arren, aldapa gora asko izan ditut"

NAHIA ZUDAIRE BURUNTZALDEA IKTKO IGERILARIA
Igeriketa Egokituko Munduko Txapelketan lehiatu da

Nerea Eizagirre

2021-2022 denboraldia "zaila" eta "motza" izan da Nahia Zudaire (Zubieta, 2004) igerilariarentzat. Ekain erdialdean Madeiran, Portugalen lehiatu zen Igeriketa Egokituko Munduko Txapelketan hiru brontzezko domina eta laugarren postu bat lortu zituen. Harekin egon gara solasean.

Zer moduzko denboraldia izan da? Denboraldi motza izan dugu. Paralinpiar jokoak amaitu eta gero, hasi ginen lanean urri aldera eta uztail hasieran amaitu dut. Lau urte daramatzat abuztuan lehiatzen eta uztail hasieran amaitzea ez dator gaizki.

Alabaina, urtebetean egin ohi diren lehiaketak, aurten bederatziz hilabetetan antolatuta dira. Nazioarteko hitzordu pila eta aldapa gora asko ere izan ditut.

Denboraldi hasieran, maila aldaketa izan zenuen, esate baterako.

Bai, hori izan da gorabeheretako bat. Gogorra izan zen.

Igeriketa egokituan maila ezberdinak daude, ni S8an nago. Baina nire elbarritasunarengatik maila horretako mugan nago. Bi urtero nazioarteko maila zehazteko proba bat egin behar dut.

Otsailean, aurrekoetan baino aztertzaile zorrotzagoak izan



Nahia Zudaire igerilaria. TXINTXARRI

nituen eta mailaz igo ninduten. Ni baina elbarritasun gutxiago duen jendearekin lehiatu behar nintzen. Nituen gutxienekoek ez zuten balio eta ezin nintzen lehiaketetara aurkeztu, ezta Igeriketa Egokituko Munduko Txapelketara ere. Helegitea jarri genuen, eta irabazi genuenez,

apirilean ohiko mailara itzuli nintzen.

Ekain erdialdean munduko txapelketa lehiatu zenuen eta hiru brontzezko domina eskuratu zenituen. Espero al zenuen?

Ez nuen espero. Lortutako hiru dominetatik bi errelebo probetan izan ziren. Eta horietan taldekideen egoerak ere asko baldintzatzen du lehia; talde lana da.

Errelebo mistoak aurten gehitutako probak izan dira. Bagenekien lehen postuetan egon ahal ginela, batez ere, 4x50 m. 20 puntu estilo proban. 4x100 m. proban, berriz, Amerikako Estatu Batuak edo Britainia Handiko kirolari kopurua ikusita zailago ikusten genuen, konbinazio posible gehiago baitzituzten.

Banakako lehian, berriz, banekien ongi eginez gero, postu horietan izango nintzela.

Laura Igea, Txingudiko podiumean

Itsasoko zeharkaldien denboraldia martxan da. Hilaren 17an, XVII. Txingudiko zeharkaldia jokatu zen, Hondarribian.

Butron Pasealekuan, Kai Zahar jatetxearen ondotik atera eta hondartzaraino 2.600 metrotako ibilbidea egin zuten 165 bat parte hartzailek. Horien artean bi lasarteoriatar izan ziren, Laura Igea eta Richard Espinosa. Igea, gainera, podiumera igo zen.

Buruntzaldea IKTKo kide Laura Igeak 35,27 behar izan zituen Bidasoako ibaia atzean utzi eta hondartzako helmugara iristeko. Marka horri esker, Master + mailako podiumeko hirugarren postua eskuratu zuen Igeak. Espinosak, berriz, 43.12an egin zuen bidea.



Laura Igea (ezkerrean), Master + mailako podiumean. LAURA IGEA

Leire eta Ainhoa Martin 400 m. estilo probako A finalerako sailkatu ziren hirugarren (4.56,11) eta laugarren denbora (4.56,39) onenak eginez, hurrenez hurren.

Finaleko emaitzaren berri hurrengo zenbakian emango dugu, edizioa itxi ostean jokatu baita proba.

Hurrengo probak

Baina final hori ez da bakarria izango ziurrenik. Oraindik hiru egun geratzen zaizkie herritarrei euren onena erakusteko.

Ainhoa Martinek, esate baterako, egunero proba bat izango du. Gaur, bertan, hilaren 22an, 100 m. bularrekoa jokatu du; 23an, bular estiloko 200 metrokoa eta azken egunean, 200 m. lau estiloko.

Azken proba horretan, bere ahizparekin egingo du bat Leire Martinek. Eta hilaren 23an, bizkar mailako 200 m. lasterketa lehiatuko du.

Bestalde, Garazi Etxeberriak bihar, izango du bigarren proba junior mailako lehian, estilo libreko 100 m. lasterketa.

Espainiako errekorra egin zenuen, gainera, 100 m. libre proban. Aurten, ordea, ez da hain oparoa izan markei dagokionez, ezta?

Aurreko denboraldia luzea izan zenez eta urrian hasi ginenez lanean, otsailean ez nengoen azkar igeri egiteko prest. Kosta zait erritmoa hartzea; munduko txapelketara, ordea, ongi iritsi nintzen fisikoki.

Aipatu bezala denboraldi zaila izan da eta emaitza batzuk lortzea ere zaila izan da.

Hurrengo denboraldian pentsatzen hasi al zara?

Helburu nagusia Manchesterreko Munduko Txapelketa izango da, uztail bukaeran. Bertan Pariseko Paralinpiar Jokoetako plaza kopurua banatuko da. Beraz, bertan lan ona egiteko eta plazak lortzeko borrokatuko gara.

Irakurri elkarrizketa osoa
www.txintxarri.eus atarian

Herritarrek, aurpegia eta gurutzea arraunean

Donostia Arraun Lagunak-ek sailkapeneko burua galdu du Euskotren Ligan; Orion eta Zierbenan bigarren amaitu ditu estropadak. ETE Ligan, berriz, Hondarribiak Marina De Cudeyo Dynasol Sari Nagusia bandera irabazi eta lehen postuan da berriz ere

Txintxarri

Atsedendiko asteburura iritsi da Euskotren Liga. Sei jardunaldi lehiatu dituzte eta azken bi saioetan Orio Orialki izan da nagusi. Ondorioz, aurre hartu du sailkapenean (22 puntu) eta Aiora Belartietia herritarra kide duen Donostia Arraun Lagunak bigarren postuan da (20 puntu).

Hilaren 16an, etxeko bandera jaso zuten mirotzek. Orioko XXII. Emakumezkoen Estropada - Orio Kanpina X. bandera lehiatu zuten ligako lau traineruek.

Oriotarrak hasieratik estropadako buru jarri ziren eta lehen luzean ihes egin zion Donostia Arraun Lagunak ontziari. Ziabogan zazpi segundo zeuden bi ontzien artean.

Bigarren luzean ere errenta areagotu zuen Orio Orialkik eta 11.00,32 egin zuen helmugan; Lugañenek berriz hamar segundo gehiago behar izan zituen.

Garaipenaz gain, Ligako sailkapeneko lehen postua



Aiora Belartietia, Zierbenan aurreko postuan ziaboga egiteko prest. EUSKOTREN / A. ARRIZABALAGA

eskuratu zuen San Nikolas ontziak.

Zierbenan izan zen bigarren hitzordua, II. Edinor bandera eta asteburuko lehen saioaren antzera, oriotarrek eraman zuten saria.

Argi berdearekin bat aurreratu zen Orio. Lehen luzean bizpahiru segundoko tartea mantendu zuen Aiora Belartietia kide duen eskifaia rekiko. Ziabogaren ostean, berriz, errenta handitu zuten mirotzek bost segundora

eta hori mantendu zuten helmugaraino.

Donostia Arraun Lagunak-ek espero ez zuen lehia izan zuen gainera. Azken metroetan erritmoa estutu behar izan zuen, Nortindal Donostiarra Ur Kirolak 100 azkar gerturatzeko ari zen-eta. Donostiako bi ontzien artean, bi segundoko tartea izan zen Lugañeneren alde.

Liga astebetetz etengo da. Taldeek ez dute indarrak hartzeko astirik izango, ordea, Euskadiko txapelketa lehiatuko baitute hilaren 25ean, Lekeition. Ostean, txapelketako gainerako zortzi jardunaldiei aurre egin beharko diete. Oraindik ez dago ezer erabakita, asteburuko lehia izango baita. Abuztuaren 20an eta 21ean Zarauzko Ikurriñeko bi jardunaldiekin emango diote amaiera ligari eta orduan ikusiko da garaikurra nork altxatzen duen.

Pedreñan garaile

Kantabriako uretan, berriz, nagusi izan zen Hondarribia Bertako igogailuak trainerua, Marina De Cudeyo Dynasol Sari Nagusia emakumezkoen II. banderan. Intza Fernandez herritarra eskifaia kide duen Ama Guadalupeko ontziak, gainera, Emakumeen Traineru Elkarteko (ETE) ligako sailkapeneko lehen postua eskuratu du garaipenari esker.

Erlojupeko formatuan jokatu zen estropada. Ama Guadalupeko eta Hibaikaren arteko lehia espero

bazen ere, Deustok ezustekoa eman zuen eta bigarren postua lortu zuen.

Nahiz eta estropada eremuan haize handia egon, Hondarribiak ederki egin zuen arraun eta denbora onena lortu zuen ibilbide osoan zehar. Ziabogan sei segundotan ondu zuen bilbotarrek egindako marka (06.23). Helmugara arte, gainera, errenta handitu zuen Ama Guadalupekoak (11.32,96); Deustok (11.40,07) egin zuen.

Era honetara, Ligako laugarren garaipena eskuratu du Hondarribia Bertako Igogailuak.

Eta Euskotrenek ez bezala, ETEko ontziek ez dute atsedetik izango, hilaren 23an, Errenteriako Hiria Emakumeen Traineru Elkarteko Liga IV. Ikurriña jokatu dute, Errenterian.

Pasaian lehia

Bestalde, aurreko zenbakiko agendan, Kantabriako Arraun Elkarteko (KAE) 2. mailako lehia zegoela iragarri baguen ere, okerreko informazioa eman genuen; KAEleko jardunaldiak ziren eta bigarren mailako ontziek atsedena izan zuten.

Gaizka Ormazabal herritarra kide duen Hibaikak hilaren 23an izango du hurrengo hitzordua Trintxerpen. Pasaia XXXVII Bandera lehiatuko dute.

KAE2 ligan, hirugarren postuan da Errenteriako ontzia eta aurreko jardunaldietan bezala, lehen hiru postuetan egoteko lehiatuko da.

Raul Ramos herritarrak lan ederra, zortzigarren jardunaldian

Hirugarren postuan amaitu du Groupe Carrus sarian. Abuztuan eta irailean hitzordu garrantzitsuak izango dira

Txintxarri

Udako denboraldia aurrera doa Donostiako Hipodromoan. Hilaren 16an, zortzigarren jardunaldia jokatu zen. Horretan Raul Ramos herritarra izan zen protagonistetako bat. Laugarren lasterketan bigarren postuan sailkatu zen herriko jockeya Lady McQueen behorra gidatuz eta Groupe Carrus Sari Nagusiko azken metroetan lehia bizian izan zen Kennocha behorarekin.

Lehen lasterketan Borja Fayosek gidatutako Papyrus Roadak irabaziko zuela zirudien arren,

atzetik etorritako Queen of Gloryk eta bere gidari Cristina Perezek eraman zuten European Breeders' Fund saria. Ez zen Perezek lortuko zuen sari bakarra izango.

El Molino del Lobo sarian ez zen lehiarik izan. Jaime Gelabertek gidatutako Te Koop izan zen hasieratik nagusi eta bakarrik igaro zuen helmuga.

Digitalak saria, berriz, azken metroetan erabaki zen. Goyesca behorak eta Cristina Perez gailendu ziren. Leader's Legacy eta Julia Zambudio izan ziren bigarren postuan.



Raul Ramos (urdinez) eta Kennocha, sari nagusiko helmugara iristen. TXEMA VALLES

Laugarren proban, aipatu legez, Lady McQueen behorra gidatuz atzetik iritsita lortu zuen bigarren postua Ramos herritarrak. Aurretik, ordea, lasterketa hasieratik buru izan ziren Pantxineta eta Vaclav Janacek

helmugaratu ziren; Garda Seguridad saria irabazi zuten.

Jardunaldiko sari nagusian ere bukaera ikusgarria izan zen; protagonistetako bat Ramos bera izan zen. Azken metroetan hiru behor izan ziren garaipenarengatik

lehan eta Groupe Carrus saria Vaclav Janacekek eskuratu zuen oraingoan ere Navia gidatuz.


Hitzordu garrantzitsuak

Hilaren 24an, aukera berria izango dute zaldi lasterketen zaletuek lehiaz gozatzeko.

Arratsaldeko 17:30etik aurrera, Biarritzeko Hipodromoan, Gautena, Insalus, Noticias de Gipuzkoa eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Piztu Kultura saria lehiatuko dira.

Aurki, gainera, hitzordu garrantzitsuenak iritsiko dira. Abuztuan Maria Cristina Hotela hilaren 7an; Urrezko Kopa abuztuaren 15ean, astelehenarekin, eta Eusko Jaurlaritzaren Saria abuztuaren 21ean. Irailaren 9an, ostiralarekin, berriz, Donostiako Sari Nagusiak emango dio amaiera denboraldiari.

KOMIKIA



Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitarteokak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.



Jaio da!


Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n. Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 22




Larunbata, 23




Igandea, 24




Astelehena, 25




Asteartea, 26



Asteazkena, 27



Osteguna, 28



TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29
 EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
 KIROLDEGIA: 943-37 61 82
 MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
 GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
 KIUB: 943-36 16 05
 UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
 MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
 DYA: 943-46 46 22
 GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
 UDALTZAINAK: 943-36 24 42
 ERTZAINZA: 943-53 88 40
 SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

	6		9	1	3	2	
			7	3	4		
3		8	4				1
2	5				8		6
7	9		3	6			
	3	6				7	4
		3	1	8			
1	8			6		4	3
6	2		3			8	9

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 22 LASA
LARUNBATA, 23 DE MIGUEL
IGANDEA, 24 DE MIGUEL
ASTELEHENA, 25 DE MIGUEL
ASTEARTEA, 26 ACHA-ORBEA
AZTEAZKENA, 27 URBISTONDO
OSTEGUNA, 28 GANDARIAS-URIBE

EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
 DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
 M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
 Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

OHARRA

Madrilera bidaia

Biyak Bat erretiratuen elkarteak kideek Madrilera bidaia antolatu dute urriaren 17tik 21era.

Txangoaren barne daude, besteak beste, Reina Sofia museorako sarrera, Almudenako katedrala edo Austriar Madrilera bisita. *El Rey Leon* musikaleria joateko sarrerak ere aukerazkoak dituzte bidaiariak.

Prezioari dagokionez, bazkideek 565 euro ordainduko dituzte; bazkide ez direnek, berriz, 610 euro. Banako logela nahi duenak 150 euro gehiago gehitu beharko ditu preziora.

Irteeran izen emateko epea uztailearen 26an irekiko du elkarteak. Inskripzioa Biyak Baten egoitzeko bulegoan egingo da astearte eta ostegunetan, 10:30etik 12:30era.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Marina D'Or urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukalde eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukakutuko genuke. Harremanetarako zerbakia: 675 70 39 06

ERRENTAN EMAN

Apartamentu bat dut Benidormen, eta alokatzeko eskaintzen dut abuztu, irail eta urrian, hamabost egunez edo hilabete osoz. Harremanetarako zerbakia, 677 35 18 35 (Lourdes)

Etxebizitza bat alokatzen dugu Basaundi bailaran. Sukaldea, egongela, bi logela, komuna eta balkoi handi bat ditu. Harremanetarako zerbakia, 678 37 40 72 (Joxe Mari).

Errioxan, Alesancotik gertu, 60 metro karratuden apartamentua alokagai. 60 metro karratuden lorategia du, bista paregabeak, baita

igerileku komunitarioa ere. Ekainetik irailera alokagai, hamabostaldika. Nahi izanez gero argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zerbakia: 666 88 0917.

PARTEKATU

Neska langile bat naiz eta etxebizitza osatzeko beste bi neska arduratsu eta garbiren bila nabil. Etxea argitsua, handia da eta gela guztiek kanpo aldera ematen dute. Herri erdian dago, topo eta autobus geltokitik oso gertu. Harremanetarako zerbakia: 666 32 05 20.

TANA

ESKAINITZA

Irailean irekiko dugun taberna baterako sukaldari bila gabiltza. Interesa baduzu idatzi hona: arimataldeas@gmail.com.

15 urteko neska bati euskara klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. Harremanetarako zerbakia, 631 57 15 40 (Arratsaldez deitu).

ESKARIA

Adineko pertsonak zaintzeko prest nago.

Esperientzia dut eta baita paperak ere. Harremanetarako zerbakia: 627 20 61 10.

Umeak zaindiko nituzke. Harremanetarako zerbakia: 695 18 41 79.

Prest nago adineko pertsonak orduka zaintzeko edo tabernari zein sukaldari gisa aritzeko.

Harremanetarako zerbakia: 663 49 98 41. Adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest nago. Interna, orduka baita asteburuetan ere. Harremanetarako zerbakia: 673 55 62 89.

zerbakia: 632 14 84 61 edo 606 66 10 48.

Garbitzaile lanak egiteko prest nago, orduka. Harremanetarako zerbakia: 618 81 43 63.

Adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest nago. Asteburuetan ere. Harremanetarako zerbakia: 627 20 61 10.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketean... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketean. Harremanetarako zerbakia: 673 55 62 89.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA
Unibertsitateko ikastetako egiten ari den edota amaitu dituen pertsona behar dugu, DBHko 3. mailako ikasle bati eskola partikularrak emateko. Astean hiru egunetan beharko genituzke eskolak eta azterketa garaian eskola extrak interesatuek honako telefono zenbakira dei dezakete: 630 73 29 49

Unibertsitateko ikaslea erreformatu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest dagoena, goizez nahiz arratsaldez.

Harremanetarako zerbakia, 688 65 56 93.

Udan haurrak zaintzeko edo erreformatu eskolak emateko prest dagoen gazte euskaldun bat naiz. Lehen Hezkuntzan eta Pedagogian graduatua eta 2-12 urteko haurrekin esperientziaduna, irakasle zein aisialdiko hezitzaile modura. Harremanetarako zerbakia, 634 21 43 61.

Unibertsitateko ikaslea naiz, eta DBH mailako eskola partikularrak emateko zein edozein adineko umeak zaintzeko eskaintzen dut nire burua, edozein momentu eta ordutegitan lan egiteko prest. Harremanetarako zerbakia: 644 98 03 49.

Zientzia esparruko erreformatu saio partikularrak eskaintzen ditut, DBH eta Batxilergoko ikasleentzako, irakasgai askotan: Matematika, Fisika, Kimika, Marraketa, Teknologia, Biologia eta Geologia. Ingeniaritza Mekanikoko gradua eta bigarren hezkuntzako masterra ditut. Harremanetarako zerbakia, 697 45 97 96.

ESKELA

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**


NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. **12 €** (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. **20 €** (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646 82 44 66

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaleak:

Unai Bardaji, Oier Bocos, Lide Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Gorka Morales eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzua

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/33
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 22

LASARTE-ORIA Antzerkia
Barsanti konpainiak *Akabo* antzezlaren emanaldia egingo du. Sarrera, doan. Okendo plaza, 19:00etan.

LARUNBATA 23

ZUBIETA Santio festak
Santio festak ospatuko dituzte asteburuan zubietarrek eta honako egitaraua iragarri dute:

18:00etan, jaien hasiera: txupina eta buruhandiak. Jarraian txosnen irekiera Elene eta Uxuek girotuta.

19:00etan, sandina jana.

23:00etan, kontzertuak: Skakeo, Perlata, Fan&Go. Ondoren, GurdietzRock II.

Zubieta, 18:00etatik aurrera.

ANDOAIN Kontzertua

Urtz taldeak kontzertua emango du, *Zabalduta atek* izeneko azken diskoko abestietan oinarrituta. Goiburua, 20:00etan.

IGANDEA 24

LASARTE-ORIA Azoka

Herritarrek aukera izango dute makina bat jaki eta produktu erosteko 37. Santa Ana Artisau Azokan. Okendo plaza, 10:00-14:00 eta 17:00-20:00.

ZUBIETA Santio festak

Santio festen barruan, jubilatuen eguna ospatuko dute zubietarrek eta honako egitaraua iragarri dute:

14:00etan, jubilatuen bazkaria, Yoko Garbi elkartearen.

17:30etan, Ttipika taldearekin dantzaldia. Jarraian, buruhandiak.

19:30etan, bingoa txosnan. Ondoren, Txalagore taldearen emanaldia.

21:00etan, herri afaria, Zubietako Pilota Elkartearen eskutik. Ondoren, Laiotz taldearekin dantzaldia. Zubieta, 14:00etatik aurrera

ASTELEHENA 25

ANDOAIN Kontzertua

Joseba Tapia herritarrek kontzertua emango du. Etxeberrieta, 20:00etan.



LASARTE-ORIA Santa Ana Eguna Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak antolatzen duen Santa Ana eguneko parodia ohiko formatura eta tokira itzuliko da aurten, Okendo plazara hain zuzen ere. Ikasturte honetan herrian gertatutako kontu ugari eramango dituzte oholtzara, umoretik landuta. Egunotan ari dira egitasmoan parte hartuko duten aktoreak entseguak egiten, Ttakunenean.

Lasarte-Orian, uztailaren 26an, 20.30ean.

ASTEARTEA 26

LASARTE-ORIA Santa Ana Eguna

Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak Santa Ana egunerako egitarauaren berri eman dute:

11:00etan, meza Ama Brigitarren komentuan. Ondoren, luntxa.

12:00etan, Santa Ana karkaban dantzatuko dute Erketz EDTko lagunek.

17:30etik aurrera, pala txapelketako partida erabakigarriak: 3. eta 4. postuarena aurrena, eta final handia gero.

18:30ean hasita, parodian antzeztuko duten aktoreek herrian barrena desfilatuko dute.

20:30ean, aurtengo parodia, Okendo plazan. Ohi bezala, ikasturtean herrian gertatu direnak umoretik landuko dituzte aktoreek.

Herrian zehar, 11:00etatik aurrera.

ZUBIETA Santio festak

Santio festen barruan, oilasko biltzaileen eguna ospatuko dute zubietarrek eta honako egitaraua iragarri dute:

06:00etan, oilasko biltzaileen irteera, Ane eta Alazne trikitilariekin.

14:30ean, oilasko biltzaileen iritsiera.

Zubieta, 06:00etatik aurrera.

ASTEAZKENA 27

ZUBIETA Santio festak

Pilota jaialdia antolatu du jai batzordeak. Zubieta, 18:00etan.

OSTEGUNA 28

LASARTE-ORIA Zinema

Zabaletan Auzolan Elkarteak kale zinema saioa deitu du; *Mi pequeña miss sunshine* filma proiektatuko dute. Eguraldi txarra eginez gero, proiektzioa egunez aldatuko dute. Frontoi atzeko pista, 22:00etan.

OSTIRALA 29

LASARTE-ORIA Antzerkia

Ganso&Cia taldeak *Panoli kabareta* antzeztuko du. Okendo plaza, 19:00etan.

ZUBIETA San Inazio festak

Umeen egunerako honako egitaraua iragarri dute:

10:00etan, jolasen hasiera.

12:30etan, marrazketa saioa.

14:00etan, umeen bazkaria. Bakoitzak berea eraman behar du eta jai batzordeak jarriko du postrea eta sorpresa.

16:00etan, jolasen jarraipena. Ondoren, txokolatada eta buruhandiak. Bukatzeko diskofesta.

Zubieta, 10:00etatik aurrera.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

ZABALETA

'Mi pequeña miss sunshine'
Osteguna 28
22:00.

USURBIL

URBIL

'Minions: el origen de Gru'
Ostirala 22

15:45, 16:30,
17:55, 18:50.
Larunbata 23
12:30, 15:45,
16:30, 17:55,
18:50.

Igandea 24
12:30, 15:45,
16:30, 17:55,
18:50.

'Jurassic world: dominion'
Ostirala 22

21:10.
Larunbata 23
21:10.
Igandea 24
21:10.

'Lightyear'
Larunbata 23
12:15.

Igandea 24
12:15.
'Elvis'
Larunbata 23
12:00.

Igandea 24
12:00.

'La memoria de un asesino'
Ostirala 22

16:15, 19:00,
21:50.
Larunbata 23
16:15, 19:00,
21:50.

Igandea 24
16:15, 19:00,
21:50.

'Llenos de gracia'
Larunbata 23
12:10
Igandea 24
12:10

'Men'
Ostirala 22
20:15, 22:45.

Larunbata 23
20:15, 22:45.
Igandea 24
20:15, 22:45.

'Padre no hay más que uno'
Ostirala 22

16:00, 17:05,
18:30, 19:35,
21:05.

Larunbata 23
12:00, 16:00,
17:05, 18:30,
19:35, 21:05.

Igandea 24
12:00, 16:00,
17:05, 18:30,

19:35, 21:05.
'Thor: love and thunder'
Ostirala 22

16:05, 18:55,
21:45.
Larunbata 23
12:10, 16:05,
18:55, 21:45.

Igandea 24
12:10, 16:05,
18:55, 21:45.

'Top gun: Maverick'
Ostirala 22

22:05.
Larunbata 23
12:15, 22:05.

Igandea 24
12:15, 22:05.



LABURPENA

'La memoria de un asesino'

Zuzendaria: Martin Campbell. **Gidoia:** Dario Scardapane, Carl Joos, Erik Van Looy. **Argazkia:** David Tattersall **Ekoiroleak:** Black Bear Pictures, Welle Entertainment, Arthur Sarkissian Productions, Camera Hogs, Signature Pictures. **Herrialdea:** Amarietako Estatu Batuak (2022). **Iraupena:** 114 minutu. **Generoa:** Thriller, remake. **Musika:** Rupert Parkes. **Aktoreak:** Liam Neeson, Guy Pearce, Monica Bellucci, Taj Atwal, Harold Torres, Ray Fearon, Ray Stevenson, Louis Mandylo

Agindutako bete ezin duen hiltzailea

Alex Lewis (Liam Neeson) eskarmentu handiko hiltzaile bat da, eta ospe handia du. Erretiroa hartzeko asmoa du, baina azken misio bat esleitu diote, bere nahia bete baino lehen. Helburua sinplea da: pertsona bat hiltzea. Baina, orduan, jakin du hil behar duen pertsona neskatala bat dela,

eta ez bai moral batean harrapatuta, Alexek ez du kode etikoa urratzen duen lan bat egin nahiko; kontratua bertan behera uzteko eskatuko du. Konturatuko da, ordea, beste profesional batek hil duela neska, eta mendeku pertsonalerako bideari ekingo dio orduan.

Santa Ana Pintxoa

Lasarte - Oria 2022

Uztailak 24



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

ARKUPE TABERNA

HERRIKO ETXEA

CAFÉ BAR BUENETXEA

ZUBIETA TABERNA

BAR LASARTE

BAR ALAI



SANTA ANA
2022

uztailak 26

11:00etan

Santa Ana eguneko meza, Ama Brigitarren komentuan. Ostean, luntxa.

12:00etan,

Erketz EDTren dantza, Santa Ana karkaban.

18:30ean,

Desfilea herrian barrena

20:30ean,

Santa Ana parodia.
Okendo plazan*



* Eguraldi txarra eginez gero Manuel Lekuona Kultur Etxean egingo da.